Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Jexuxmari Errekondo Aizpurua

Usurbil, Gipuzkoa (1929)



Aurkibidea

Biografia



Arruenea Berrin jaio zen, sei senideren artean bosgarren. Aita Usurbilgoa zuten eta ama Zubietakoa. Gerra hasi zenean, amaren baserrira joan ziren Zubietara, eta 1956an itzuli ziren Usurbilera bizitzera. Baserriko lanetan gogor aritutakoa, Usurbilen eta Andoainen ikasi zuen. Baserrian sagardo asko ekoizten zuten gero saltzeko, eta hartarako osabak handik eta hemendik ekarritako makinen laguntza izaten zuten. Erreboteko jokalaria izandakoa, 1956tik erretiroa hartu arte zerrategian egin izan du lan, eta ondo ezagutzen ditu zuhaitzen gaineko kontuak. Udaletxean ere egin izan du lan, lehenengo Francoren garaian, eta geroago Franco hil ostean: hirigintzako lanen arduraduna izan zen, eta baserrietako telefonoa eta ura jarri zuten orduan, besteak beste. Usurbilgo ikastolaren sortzaileetariko bat izan zen, eta baserritarren sindikatuan ere egin zuen lan.

Zintak

USU-032

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data**: 2010-08-31
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

USU-033

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data**: 2010-08-31
- **Iraupena**: 63 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

USU-034

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data**: 2010-08-31
- **Iraupena**: 45 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

USU-035

- **Proiektua**: Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Eider - Torregarai Gorostidi, Joxe
- **Data**: 2010-08-31
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Kalean jaio, baina sei urterekin Zubietara

- **Erref**: USU-032/003
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:01:42. **Bukatu**: 00:03:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:
Arruenea-Berri etxean jaio zen. Sei senidetan bosgarrena. Aita usurbildarra eta ama Zubietakoa. Ez du ondo gogoratzen etxean nola moldatzen ziren, sei urterekin Zubietara joan zirelako bizitzera, gerra zela eta. Etxea erre zieten.

2. Eskolara gutxi; maisuaren zigorrak

- **Erref**: USU-032/005
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:03:29. **Bukatu**: 00:05:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:
Gerra aurretik gutxi joan zen eskolara. Txikitan mojetan mutilak eta neskak ibiltzen ziren. Teodoro Ruiz maisuarekin ere ibili zen. Makilarekin jotzen zuen. Makila nork eramaten zion. Zigorrak. Erdaraz.

3. Eskumuturra txikitu zuen bizikletan

- **Erref**: USU-032/006

- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:05:45. **Bukatu**: 00:07:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:
Umetako jolasak. Madrildik udan familiak etortzen ziren, eta haien bizikletarekin ibiltzen ziren. Pareta jo zuen, eta eskumuturra txikitu. Medikuak zer egin zion.

4. Zubietara, gerra iristean; baserriko bizimodua

- **Erref**: USU-032/009
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:11:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:
Gerra hasi zeneko askorik ez du gogoratzen. Ijitoak bezala joan ziren Zubietara. Aita udaletxeko idazkaria zen, eta horregatik joan ziren baserrira. Francoren aldekoak miaketak egiten baserrian. Osabak alde egin zuen. Neskameak, morroiak. Jai eta aste lanean.

5. Baserrian egiten zituzten lanak; sagastiak eta sagardoa

- **Erref**: USU-032/010
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:11:23. **Bukatu**: 00:13:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Behiak, zekorrak... animalia asko zituzten, hogei buru bai. Egiten zituen lanak: artajorran, babarruna bildu, sagarrak bildu... Lana gustura egin du beti. Lan banaketa. Sagarrak biltzen, sei-zazpi sagasti. Sagardoa egiten zuten. Dolarea.

6. Umeek pitarra edaten zuten

- **Erref**: USU-032/012
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:13:36. **Bukatu**: 00:15:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Umeek ere edaten zuten sagardoa, baina pitarra gehiago. Pitarra zer den. Osabak hartzen zion neurria, pitarrari zenbat ur bota. Sagardoa.

7. Sagardoa nora saltzen zuten; botilak garbitzen

- **Erref**: USU-032/013
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:15:09. **Bukatu**: 00:17:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Aizpuruan egiten zuten sagardoa oso ona ei zen. Elkarte gastronomikoetara saltzen zuten asko. Kamioietan eramaten zuten. Negu guztia botilak garbitzen, makina txiki batekin (nolakoa zen azaltzen du). Upela.

8. Osaba zenaren kontuak: sagardotegia

- **Erref**: USU-032/014
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:17:32. **Bukatu**: 00:22:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Beste aurrerapen batzuk
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Larrugintza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Osabak gerra aurretik aurrerapen asko zituen: sagardoa mugitzeko bonba. Donostiako jendearekin zuen harremana. Bentura Elizondo, Mariano Lasarte... Hika. Osabak esaten zuena: asturiarrak askoz aurreratuago zebiltzala sagardogintzan. Dolarea motorrarekin. Astoaren larruarekin egin zuen korrea. Larrugintza.

9. Sagardoa nola gozatu; patsa; zipotza

- **Erref**: USU-032/015
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:22:27. **Bukatu**: 00:25:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Upelak. Sagardoari gozoa joateko zer egiten zuten. Patsa aitzurtu egiten zuten, sagardoz bete eta upelera. Patsa zer den. Zipotza zer den. Onila lastoarekin, iragazki bezala. Tina.

10. 80.000 sagardo litro egin, eta dena saldu

- **Erref**: USU-032/017
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:26:24. **Bukatu**: 00:28:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Dolarea etxetik kanpo zegoen, bordan. Sagardoa ona egiten zuen. Altzu baserria ere berea zuen osabak, eta han upelak jarri zituzten. 80.000 litro sagardo egiten zituzten, eta dena saldu. Nolatan ateratzen zitzaion sagardoa beti berdina.

11. Kupelen negarra nola geratu

- **Erref**: USU-032/018
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:28:26. **Bukatu**: 00:31:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Natura » Meteorologia
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Upelak garbitzen ibiltzen zen, urarekin. Upelen negarra zer den; ilargi berriarekin gertatzen da. Negarra nola geratu. Ilargiaren eragina. Tenperatura beti bera zen. Seboa.

12. Dolarea goraino betetzen zuten 35 kargarekin

- **Erref**: USU-032/020
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:32:02. **Bukatu**: 00:34:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Sagardoaz asko zekitenak, osabaz aparte: Nikanor eta Saltxipikoak. Dolarea puntaraino betetzen zuten 35 kargarekin. Egunean hiru ebakialdi. Jotzeko makina garbitzen. Karga bakoitza sei zaku ziren. Bertsotan ibiltzen ziren.

13. Bertsopaperak eta Usurbilgo bertsolariak

- **Erref**: USU-032/021
- **Iraupena**: 0:02:09. **Hasi**: 00:34:51. **Bukatu**: 00:37:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:
Bertsopaperak. Kale Zaharrean, Dionixiok atera zituen, eta saldu. Usurbilgo bertsolariak: Olloki, Gaztelu... Estropaden gaineko bertsoak. Bertso-saioak debekatu egin zituzten, gerra ondoren. Basarri, Uztapide, Zepai... bertsolariak aipatzen ditu.

14. Irratia: isilpeko irrati-kateak

- **Erref**: USU-032/024
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:37:49. **Bukatu**: 00:41:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Irratia beti izan zuten etxean. Nolakoa zen. Pirenaica eta BBC entzuten zituzten, isilpekoak. Dolores Ibarruri. Onaindiak ere hitz egiten zuen, Doctor Olazu ezizenarekin. Ingelesa.

15. Zubietako eskola; gerrako fusilatuak

- **Erref**: USU-032/026
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:41:37. **Bukatu**: 00:43:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Eskolan, Zubietan ere ibili zen, falangista baten emaztearekin; azpeitiarra zen, eta euskaraz ematen zuen eskola. Lehengo maisua, Koxme, fusilatu egin zuten Francoren aldekoek. Usurbilen sei-zazpi fusilatu zituzten. Cara al Sol kantatzen zuten.

16. Bizikletan eskolara, Andoainera

- **Erref**: USU-032/027

- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:43:03. **Bukatu**: 00:44:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Lasarten eta Andoainen ere ibili zen eskolan. Andoaingo fraide eskola. Bizikletan joaten zen egunero Zubietatik. Gero, lanera ere bai.

17. Igandean lana egiteko, elizara baimen eske

- **Erref**: USU-032/028
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:44:52. **Bukatu**: 00:46:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Oporrik ez zen izaten lehen. "Sabado ingles". Larunbatetan ere lana egiten zuten. Igandea beti jai, baina baserrian orduan ere lana. Belar garaian elizan baimena eskatzen zuten, lana egiteko.

18. Bazkaria eramaten zuen bizikletan, eskolarako

- **Erref**: USU-032/029
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:46:15. **Bukatu**: 00:49:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:
Zubietatik Andoainera nola joaten zen, bizikletan, ikastetxera. Bazkaria eramaten zuen, eta emakume batek berotzen zion jana. Tortilla. Lehengo bideak, zuloz beteak. Kotxe gutxi zebilen. Hika. Zubi berria. Tranbia.

19. Eskolan bustita; pilota partida berezia

- **Erref**: USU-032/030
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:49:05. **Bukatu**: 00:52:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Nola janzten ziren. Goizean busti, eta egun dena bustita eskolan. Oinetakoak. Galtza luzeak. Bost bat urte egin zituen Andoainen eskolan. Pilotan Etxeberriaren kontra egin zuenekoa: 15-0 galtzen hasi eta 15-16 irabazi zion. Hika.

20. Eskola profesionalean bi urte egin zituen, Andoainen bertan

- **Erref**: USU-032/032
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:52:36. **Bukatu**: 00:56:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:
Eskolan zer ikasten zuten. Oinarri gutxi zuten, eta ezinean ibiltzen ziren. Eskola profesionala jarri zuten han bertan, eta bi urte egin zituen han. Langara futbolariaren anaia zen maisua. Euskadiko Selekzioa. Cristobal Colonen arrautzaren istorioa kontatzen du; ipuin modukoa.

21. Lanbide-eskola eta Laborde

- **Erref**: USU-033/003
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:05:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Lanbide-eskolan zer ikasi zuten azaltzen du. Labordek zerikusia zuen eskola hartan. Laborderen fabrikan zer egiten zen aipatzen du. Jexuxmariren anaia kimikaria zen eta lantegi hartan sartu zen lanean; Wolframioa erabiltzen zuten han.

22. Laborden aprendiz eta osabaren laguntzaile

- **Erref**: USU-033/005
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:05:30. **Bukatu**: 00:08:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:
Labordera aprendiz joaten ziren, praktikarekin ikastera. Han ikasitakoak asko

balio izan dio. Soldadutzara joan ostean, osabari laguntzen hasi zen arotzerian. Usurbilgo etxea egiten aritu zen osabarekin batera.

23. Zerrategian hutsetik hasi eta pixkanaka hazi

- **Erref**: USU-033/008
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:14:38. **Bukatu**: 00:15:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Zerrategian lanean hasi zenean, hutsetik hasi ziren. Pixkanaka hazten joan ziren.

24. Zuhaitzak botatzeko, ilargiari begiratu

- **Erref**: USU-033/009
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:15:40. **Bukatu**: 00:20:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Inguruko basoetan aritzen ziren lanean egurra lortzeko. Hasieran, trontzarekin botatzen zituzten arbolak. Ilargi sasoiak errespetatzen ziren zuhaitzak mozteko. Sasoi horiei buruzko azalpenak ematen ditu.

25. Zuhaitz motak eta haien ezaugarriak

- **Erref**: USU-033/010
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:20:40. **Bukatu**: 00:21:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Zuhaitz moten ezaugarriak aipatzen ditu: egur onak, txarrak...

26. Egurra lantzeko moduak eta tresnak

- **Erref**: USU-033/011
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:21:53. **Bukatu**: 00:23:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Egur mota bakoitza lantzeko aldeak daude. Hainbat tresna erabiltzen dira horretarako.

27. Egurra lantzeko prozesua

- **Erref**: USU-033/013
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:24:08. **Bukatu**: 00:25:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Egurra zertarako erabiltzen zen azaltzen du. Beraien zeregina egurra landu eta prestatzea izaten zen. Egurra lantzeko prozesua azaltzen du.

28. Egurra neguan moztu eta udan haren bila joan

- **Erref**: USU-033/015
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:26:42. **Bukatu**: 00:28:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Egurra lortzeko, baserritarren lurretara joaten ziren eta haiekin tratua egiten zuten. Neguan mozten zituzten zuhaitzak, prestatu egiten zuten dena, eta udan idiekin joaten ziren egur harekin kamioia kargatzera. Egunean 6 kamioi inguru betetzen zituzten.

29. Ilargi-sasoiari begiratu gabe egindako lanen emaitza

- **Erref**: USU-033/017
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:29:10. **Bukatu**: 00:32:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Pinutara dedikatzea pagotxa izan da, asko ekoitzi ahal izan baitute. Kantitateari begiratuta, ordea, ez zaio begiratu ilargiari; eta pinutara dedikatu izan den batek behin onartu zion ilargi-sasoia garrantzitsua dela zuhaitzak botatzeko.

30. Zuhaitzen gaitzak eta haien aurka zer egin daitekeen

- **Erref**: USU-033/019

- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:33:14. **Bukatu**: 00:35:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Zuhaitzek gaitzak izaten dituzte. Horren kontra egiteko, pestizidak egoten dira. Zumarrak eta gaztainak gaitza izan dute; baina gaitz horiek desegin arte, ezin izaten da ezer egin.

31. Pinu gutxiago gaur egun

- **Erref**: USU-033/020
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:35:24. **Bukatu**: 00:37:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gaur egun dagoeneko ez da horrenbeste pinu landatzen, bai baitaude beste konifero on batzuk. Ameriketatik ekarritako zuhaitzak pixkanaka sartu dira hemengo inguruetan.

32. Zuhaitzak landatzeko pazientziaren trukean, saria

- **Erref**: USU-033/022
- **Iraupena**: 0:03:58. **Hasi**: 00:37:50. **Bukatu**: 00:41:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Pinuaren hazia nolakoa izaten den azaltzen du. Zuhaitz mota bakoitzak bere denbora behar du hazteko. Eskerrak gure arbasoek zuhaitzak landatzeko ideia eta pazientzia izan zuten. Arbola bat landatzeak eta zaintzeak lurra aberastu eta ondu egiten du. Mendian ganadua ibiltzen bada, sua izateko arrisku gutxiago dago.

33. Arbola landatu eta zaintzeak balioa ematen dio lurrari

- **Erref**: USU-033/024
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:42:13. **Bukatu**: 00:44:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Natura » Meteorologia

- Iritziak

Laburpena:
Arbola landatu eta aldatzearen aldeko da Jexuxmari. Lurrari balioa ematen zaio horrela. Zuhaitzak landatzeak ekarri duen onurari dagokionez, berak izan duen esperientzia kontatzen du.

34. 1953ko uholdearen aurretiko zerrategiaren martxa

- **Erref**: USU-033/028
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:47:04. **Bukatu**: 00:49:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
1953ko urriaren 14an, uholde handia izan zen. Uholde haren aurretik, gaur egungo zerrategia hiru lan motatara dedikatzen zen.

35. 1933, 1953 eta 1983ko uholdeak

- **Erref**: USU-033/029
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:49:22. **Bukatu**: 00:53:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
1953ko urriaren 14an izandako uholdeak utzitako marka oraindik ikusgai dago zerrategian; 1983ko uholdea metro erdi beherago iritsi zen; 1933an ere uholdeak izan ziren. "Ura eta sua belaunetik behera". Uholdeak zirenean, urari alde egiten zioten.

36. Eguraldiari begira ikasitakoak

- **Erref**: USU-033/031
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:53:35. **Bukatu**: 00:55:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Lana dela eta, eguraldiari begiratu behar izan dio. Horrela ikasitakoak aipatzen ditu: ipar haizeak eguraldi ona dakarrela, hego haizeak beroa... Hego haizea omen da haize klase txarrena.

37. Eguraldiari buruzko esaera zaharrak

- **Erref**: USU-033/033
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:56:07. **Bukatu**: 00:56:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Eguraldiari lotutako esaera zaharrak aipatzen ditu.

38. Eguzkia non sartzen den begira

- **Erref**: USU-033/035
- **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 00:58:30. **Bukatu**: 01:00:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Urte-sasoiaren arabera, eguzkia puntu desberdinean sartzen da. Metafisikari buruz hitz egiten dute.

39. Errebotean nola hasi ziren

- **Erref**: USU-034/002
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:00:08. **Bukatu**: 00:02:19

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gerra aurrean pilotan aritzen ziren Jexuxmariren arbasoak. Etxean haiek pilotan jokatzeko erabiltzen zituzten tresnak topatu zituzten, eta hala hasi ziren beraiek pilotan. Erreboteko saskia nolakoa zen eta nondik lortzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa
-Gutxigora behera asuntua da, pelota asunto hau, gu oso, lenguan esan bezela, oso gaztetan jun giñan Zubitara ta bagenikin gure aurrekuak nola ibiltzen zian errebotian, gerra aurrian. Gerra etorri zanian dana moztu zan pelotak eta gaiñontzeko guztik, danak moztu zian. Ta han basarrin hala gabiltzala billatu gendun kutxa zar bat, kutxa haundi bat dana pelotaz ta xestoz ta guantez ta betia. Ta halaxe hasi giñan haik hartu ta pelota zarrakin eta abar eta. Halaxe hasi giñan gu nolabaitt'e.
-Zeintzuk hasi ziñaten jolasten?
-Ba anaiyak eta auzoko gaztiak, bertako gaztiak. Danak plazan biltzen giñan jaitan eta hola ta; halaxe hasi giñan nolabait'e.
- Zubietako plaza iguala zen oraingo...
-Berdin-berdiña, bai. Ta hortik hasi giñan ta geo pixkana-pixkana ba

ikasten. Xestuak zarrak zian. Guantiak aguantatzen dizu nahi dan aiña, larruzkua izaten da guantioi, hoi ez da apurtzen, baiño xestua apurtu itten da, hautsi iten da, ta berrik in bihar zien, ta hor Donostin bazan, azaldu zan bat gizon bat, Olazabal edo izena zuna Grosian. Grosian baiño ere zea aldea, goiko relojuba badek hor...
Joxe: -Ategorrieta.
-Ategorrietan, Ategorrietan zitxakan. Baju batian aitzen huan xestuak iten eta, bestaldeako, Iparraldeako ta. Makiña bat aldiz bizikletan joanda natxik harea, harena, zestua eiñaazi ta. Eskerrak harek berrik iten zitun ta. Harekin moldatu giñan, bai.
-Nolakuak zien zestuak?
-Zestua errebotekua izaten da hola..., ez da izaten ez puntakua eta ez remontekua, baizik beste sentzilogua izaten da askoz'e.

40. Partiduak Villabonakoen eta Iparraldekoen aurka

- **Erref**: USU-034/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:02:19. **Bukatu**: 00:04:34

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Villabona eta Zubietakoen artean izaten ziren erreboteko partiduak. Gerra aurrean, ordea, herri gehiagotan jokatzen zen hemen inguruan. Iparraldera ere joaten ziren partiduak jokatzera.

Transkripzioa
-Harekin hasi giñan eta geo harekin ibilli gea.
Joxe: -Politta da, e.
-Pixkat ikasi gendun bertan eta geo Billabonan'e bazeon, han'e beti ohittura hoi izandu huan. Ta geo haikin, haien kontra ta pixkat bat hola ibiltzen giñan.
-Billabonakoak eta Zubietakoak ziñaten orduan...
-Bai, bai. Gue garaiyan bai, baiño ikusten danez gerra aurrian toki askotan jokatzen zan, Usurbillen'e bai, Agiñan'e bai, Astiasun... Hola herri askotan.
-Hori ez zan gehio errekuperatu edo?
-Geo galdu in zan nunbaitt. Ez dakit ze pasa zan, galdu in zan. Gerra etorri zanian batez'e, gerra etorri zanian galdu zan. Geo ez zan, geo ez zan rekuperatu.
-Iparraldian?
-Iparraldian berriz han eutsi in ziyen. Han gue garaian behintzat herri askotan jokatzen zan eta oaindikan'e bastantetan jokatzen da.
-Baina zuek ez zinaten joaten Iparraldera...
-Bai, bai, bai. Bai, gu puxkat... kostatu zitzaigun ikastia. Hasi're berandu, hamasei bat urtekin edo. Hoi're in bihar da ba umetatik hasi bihar da posturak eta ikasteko ta. Gui ikaagarri kosta zitzaiun. Edadetuta hasi giñan eta. Baiño moldatu giñan, moldatzen giñan. Han'e danak ez dia oso onak, punta-puntakuak izaten eta. Baigorrin eta, Saran eta. Geo..., hola hiru edo lau herritan izandu gea. Saran askotan, Saran oso lagun onak giñun. Haik hona askotan etortzen zian eta. Oso lagun onak.
-Nola egiten zenuten hareako biajia?
-Kotxian.
-Baten batek eramaten zintuzten?
-Bai, bai. Kotxian eramaen giñen ta ekarri're bai ta.

-Eta haiekin nola hitz egiten zenuten?
-Hemen Santestebanen'e bai jokatu deu, bai. Santestebanen hor, ez dakit ba hiru-lau aldiz edo jokatuko gendun.
-Ta Iparraldekuekin hitz egiteko euskeraz hitz egiten zenuten edo nola?
-Guk bai, guk beti euskeraz. Ta haik'e bazekiten honbeste. Beren artian beti frantsesa erabiltzen zuen. Beren artian beti. Ta oaindikan'e bai.

41. Errebotea babestu eta lagundu izan dutenak

- **Erref**: USU-034/004
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:04:34. **Bukatu**: 00:08:01

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Enrique Abrili buruz hitz egiten du. Pixkanaka dirua biltzen joan ziren pilotako gastuak ordaintzeko; elkarte bat sortu zuten hartarako. Zubietako plaza hasieran ez zegoen ondo zaindua, baina Jexuxmari soldadutzan zegoela, txukundu eta pilotarako prestatu zuten.

42. Jokoaren arauak

- **Erref**: USU-034/005
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:08:01. **Bukatu**: 00:12:34

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Errebotera nola jokatzen den azaltzen du: arauak, "arraina", plazaren banaketa, taldeak...

43. Ondo jokatzeko jakitea komeni diren mugimenduak

- **Erref**: USU-034/006
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:12:34. **Bukatu**: 00:14:15

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Errebotean zer teknika eta mugimendu egitea komeni den azaltzen du.

Transkripzioa
-Geo joko batzuk izaten dia igual komeni dana bestian taldia...
-Zer ba?
-Bai. Konpaaziyoa, terreno luzetik botata terreno motxian esan deu arraiyak itten diala. Arraiyak ittia da oso inportantia zeatik hor daona dijoala bera oain, hoi lortu bihar da. Partidua irabazten da handik, partidua irabazten da terreno ttikitik. Behin edo behin joko bat itten dek luzetik'e baiño ez dek normala, ez dek oso normala, ez dek.
[...]

-Gertatu leike, terreno luzetik batek arrastaka botatzen du eta bota dun talde hortako bat beste aldian baldin bado, pasatzen baldin bada, hango taldekuak itten die pelotai juten utzi. Paretaraiño aililgatzen baldin bada, ez baita "arraiya", "kinze" bat da, kinze normal bat da. Baiño bota dun taldeko bat baldin bado haruzkaldetik harek geatzen du han eta arraiya da. Orduan joko batzuk daude komeni dana da han egotia.
Joxe: -A, klaro, klaro, klaro.
-Eta harriya [...] ezkeo berrogeira ailligitzian buelta. "Hik oain joka zak handik". Ez da beste munduko gauza baiño puxka bat..., konplikaziyo puxkat bat badu baiño ez da hain zailla. Ta hortxe ibilli izandu gea.

44. Erreboteko epaileak

- **Erref**: USU-034/007
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:15:28

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Zalantzazko jokaldiak epaitzeko, epaileak egoten dira errebotean. Epaileek esaten dituzten gauzak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Gero izaten dia tarteka dudosuak dian jokuak edo kintziak izaten dia. Hau ze ote zan, eta baiño. Hortaako han egoten dia juezak eta haik erabakitzen duena eta fuera.
- Zenbat juez egoten dira?
- Ba sakako sakia itten dan paeta aldian bi egoten diya, zeatik han losa txiki bat egoten da ta sakiak'e losa txiki horren barrenen sartu bihar du. Ordun ba ondo in dun edo han arrai bat gertatzen dan, ez dan edo, hua ikusten bi egoten dia eta geo beste bi erdiko arraiyan eta beste baldin badae behian ba hobe. Sei bat. Ondo egoteko sei bihar due.
- Ze gauza esaten dituzte, "arraia" edo "kanpora" edo. Euskeraz?
- Bai, bai, bai.
- Ze hitz esaten dituzte?
- Hamabost eta hutsa, hogeita hamar ta hutsa, hogeita hamar ta hamabost; segun.
- Kanpora, barrura, arraia...
- Ez. Arraiya danen ba hogeita hamar ta hamabosteko arraiya ta geo, aber, berrogeira ailligatu bihar du batek.

45. Errebotea vs tenisa

- **Erref**: USU-034/008
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:15:28. **Bukatu**: 00:16:47

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Errebotearen eta tenisaren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Gero gertatzen da, tenisian ez due hola iten, baiño hemen iten da, konpaziyuan bat berrogeiyan bado, arraiyik gabe berregeiyan bado eta bestia hogeita hamarrian, eta hogeita hamarrian daonak itten badu beste kintzia, eztittuk berrogeina jartzen baizik berrogeikua atzea etortzen dek, hogeita hamarrean jartzen dittuk biak. Hemen hala da bai. Eta holako zea batzuk. Hor ibili izandu gea, mundu hortan.
- Eta puntuena nundik dator. Hamabost eta...
- Ez dakigu. Hori guk hola ikasi degu ta aspaldiko kontuak dia ta.
- Hamahiru joko egitea ere.
- Hamahiru joko, bai. Ta hamaika ere izaten da. Baiño normalian hamahiru.
- Hori tenisetikan etorriko duk, ezta?
- Keba, keba! Tenis baiño lehenaokua izango da hau. Hemen behintzat aspaldikua. Hau ikusten danez artzaiyak ibiltzen zien. Badia izena duenak, jokalekuk eta. Jokalurra ta. Badia batian eta bestian. Eta hoik ibiltzen zian eta geo pixkana-pixkana eskuz ibiliko zian baiño geo pixkana-pixkana hasi hittuan ba tresnak-eta sortzen eta.

46. Erreboteko sakea

- **Erref**: USU-034/009
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:16:47. **Bukatu**: 00:18:00

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Sakea nola egiten den azaltzen du.

47. Erreboteak eragindako agujetak

- **Erref**: USU-034/010
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:18:00. **Bukatu**: 00:19:53

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Pilotak astunak izaten dira errebotean. Kirol nekosoa da; denboraldi hasieran, ohitu arte bizkarreko minak eta agujetak izaten zituzten. Agujetak bere gisa joaten ziren. Ez zuten entrenatzailerik. 40 urte ingurura arte aritu ziren errebotean jokatzen.

48. Belaunaldi berriak pixkanaka errebotean

- **Erref**: USU-034/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:19:53. **Bukatu**: 00:21:28

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Pixkanaka gazteak sartzen joan izan dira errebotean; lagundu egin behar zaie sartzen. Lehen orain baino jende gutxiago ibiltzen zen errebotean.

49. Partiduaren ostean denek batera bazkaldu

- **Erref**: USU-034/014
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:22:41. **Bukatu**: 00:23:39

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Sarara joaten zirenean, bazkaria ematen zieten beste taldekoek; haiek Zubietara etortzean, hemengoek ematen zieten bazkaria. Denek elkarrekin bazkaltzen zuten. Emakumeek ez zuten errebotean jokatzen.

50. Errebotearen jarraitzaileak

- **Erref**: USU-034/016
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:23:58. **Bukatu**: 00:25:42

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Hemen jendea joaten zen partiduak ikustera. Iparraldean jende asko joaten zen, eta sarrera kobratu egiten zen. Partiduak jokatzeko behar diren tresnak azaltzen ditu.

51. Errebotean jokatzean gertatutako istripuak

- **Erref**: USU-034/017
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:25:42. **Bukatu**: 00:27:25

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Errebotean jokatzeko, azkarra eta arina izan behar da. Jokatzen ari zirela gertatutako zenbait istripu aipatzen ditu.

52. Karmelo Balda

- **Erref**: USU-034/018
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:27:25. **Bukatu**: 00:29:37

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:
Karmelo Baldari buruz hitz egiten du. Hark egin zuen erreboteko plaza Donostiako Anoetan. Karmelo Balda dentista zen eta Francoren dentista izan omen zen.

53. Erreboteko janzkera

- **Erref**: USU-034/021
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:31:25. **Bukatu**: 00:32:43

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Erreboteko taldeen janzkera nolakoa zen aipatzen du. Nahiz eta Usurbilen bizi, Zubietara begira bizi ziren.

Transkripzioa
-Ze jazkera eukitzen zenuten?
-Zuriz jantzita beti.
-Eta ekipo bat bestetikan nola diferentziatzen zan?
-Ba gerrikuakin. Gerriko gorriya edo gerriko urdiña.
-Osea, pelotarien zea.
-Bai, eskuz jokatzen dan bezela, berdin-berdin. Ez zeon diferentzirik. Holaxe. Gure historia gutxi gorabehera hola izan da.
-Zuk esan dezu hamasei bat urtekin...
-Hamasei bat urte. Hamabost-hamasei hola.
-Zuek Zubietatik honea bueltatu ziñaten berrogeita hamaseian edo.
-Han bizitu giñan.
-Baiña gerora honra etorri ziñatenian....
-Ni berrogeita hamaseian etorri nitzan. Ordun hogeita beratzian jaiua, zenbat urte dia? [...] Ba hogeita zazpi urtekin edo hola etorri nitzan honea. Baiño gu hemen bizi giñan, gu honea etorri giñan baiño hara beira lo itten gendun, e. Je!, urte askuan, e.

54. Udaletxean zinegotzi bi aldiz

- **Erref**: USU-035/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:00:03. **Bukatu**: 00:01:18

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Udaletxean bi aldiz egon izan da zinegotzi. Bost gizon sartu ziren batera, eta bakoitzak kargu bat hartu zuen: Jexuxmariri obrak eta bideak tokatu zitzaizkion.

55. Bideak egiteko pausoak eta aurrekontua

- **Erref**: USU-035/003
- **Iraupena**: 0:04:44. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:06:02

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Baserritarrekin batera erabaki zuten bideak egiten nondik hasi. Orduko aurrekontuarekin nola moldatu ziren kontatzen du.

56. Franco hil eta Herri Lan sortu

- **Erref**: USU-035/004
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:06:02. **Bukatu**: 00:08:41

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:
Udaletxean egon zen bigarren aldian, telefonoa eta ura jarri zuten baserrietan. Franco hil ostean izan zen, eta orduan Herri Lan alderdi politikoa sortu zuten.

57. Usurbilen urarekin izandako arazoak konpontzeko egindakoak

- **Erref**: USU-035/008
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:15:21. **Bukatu**: 00:19:14

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:
Usurbilen urarekin arazo handiak egon izan dira. Hori konpontzeko egindakoak kontatzen ditu Jexuxmarik.

58. Udaletxeko soldata alderdiari babesa emateko

- **Erref**: USU-035/010
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:19:32. **Bukatu**: 00:20:40

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Francoren garaian ez zuten ezer kobratzen udaletxean lan egiteagatik; Franco hil ostean, bai, ordea. Herri Laneko zinegotziek alderdiari ematen zioten udaletxean kobratzen zuten dirua.

59. Depositua egiteko neurketak

- **Erref**: USU-035/012
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:20:51. **Bukatu**: 00:23:19

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Depositua egiteko neurketak nola egiten zituzten azaltzen du.

60. Deposituan sartzen den ura eta handik irteten dena

- **Erref**: USU-035/014
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:23:35. **Bukatu**: 00:26:13

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Presan egindako neurketetatik ondorioztatu zuen ur asko galtzen zela presan sartzen zenetik depositutik ateratzen zen arte. Andatzako ura oso ona omen da.

61. Andatzako uraren kalitate ona

- **Erref**: USU-035/015
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:26:13. **Bukatu**: 00:27:22

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:
Andatzako ura oso ona da, mendiak berak iragazi egiten baitu ura. Michelin sortu zenean, Jexuxmari zen udaletxeko sekretarioa. Andatzako ura iristen zen fabrikara eta non garbitzen zen galdetu zioten Jexuxmariren aitari.

62. Jai eta aste lanean

- **Erref**: USU-035/016
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:27:22. **Bukatu**: 00:28:22

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:
Ur-deposituaren neurketak noiz egiten zituen azaltzen du. Langilea izan da beti.

63. Nekazal sindikatuaren sorrera eta jarduera

- **Erref**: USU-035/018
- **Iraupena**: 0:04:45. **Hasi**: 00:29:54. **Bukatu**: 00:34:39

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Nekazal sindikatuan ibili zen lanean: 1908n sortu zen sindikatu hura denen artean egindako ekarpenei esker. Jexuxmariren familiako belaunaldi ugari egon izan dira sindikatuan, eta Jexuxmari bera juntan egon zen. Han izandako nondik norakoak kontatzen ditu.

64. Sindikatuko bazkideen zerrenda eguneratzen

- **Erref**: USU-035/019
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:34:39. **Bukatu**: 00:36:14

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Sindikatuan zerrenda batean azaltzen ziren sindikatuko bazkide guztiak, eta zerrenda hura eguneratu egin zuten.

65. Sindikatuaren helburua eta funtzionamendua

- **Erref**: USU-035/020
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:36:14. **Bukatu**: 00:37:53

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Baserritarrek elkarri laguntzeko batetik, eta makinaria aurreratuagoa denen artean eskuratzeko bestetik, sindikatua sortu zen. Diruak jendean duen eraginari buruzko iritzia ematen du.

66. Sindikatuan bazkide berriak sartzeko prozesua bideratzen

- **Erref**: USU-035/023
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:39:58. **Bukatu**: 00:41:47

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Jexuxmari sindikatuan lanean hasi zenean, bazkide berriak sartzeko prozesua bideratzen saiatu zen.

67. Ikastolaren sorreran Elizaren babesa

- **Erref**: USU-035/026
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:44:24. **Bukatu**: 00:47:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Ikastolaren sorreran Elizaren babesa izan zuten. Orduko arazo handiena diru falta izaten zen. Hasieran izandako maistra aipatzen du.

68. Ikastolako andereñoen erretiroa

- **Erref**: USU-035/028
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:48:19. **Bukatu**: 00:49:30

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Ikastolen sorreran lan egindako andereñoek erretiroa jaso zezaten, lege bat atera zuten duela urte gutxi.

69. Ikastolako umeen gurasoen meritua

- **Erref**: USU-035/030
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:50:20. **Bukatu**: 00:51:08

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:
Hasiera batean 6-8 ikasle joaten ziren ikastolara. Ume haien gurasoek konfiantza handia jarri zuten ikastolan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-06

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com